

2014-11-13an LAKUAN IZANDAKO BILERA (... ETA III)

Sailak ez du negoziatzen eta ez die erantuten ez posta elektronikoz bidalitako idazkiei, ez erregistroan aurkeztutakoei... horiek direla-eta hainbat eta hainbat kontu mahairatu behar izan genituen. Dena den, gehienen inguruan ez genuen erantzunik jaso. **LAB hasi zen exijitzen aktan agerrarazteko honako salaketa hau:** sailarekin ez dago ez negoziazorik ez komunikazorik; ez Jon Uriarte Zuzendariak ez eta Begoña Otazua Pertsonal buruak ez diete idazkiei erantzuten.

2015EKO EPEMUGADUN LANPOSTUAK

Haxe da JAZren asmoa: 2015eko urtarrilean derrigortasuna beteta behar luketen lanpostuak hornitzea hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileekin. Horretarako, LPZ aldatzea erabaki dute: HE egiaztatuta ez duten langileek betetako dotazioetatik betekizuna kentzea eta eraman HE daukaten langileek betetako beste batzuetara. Lehendabizi, bitarteko langileekin hasiko dira eta, hori izan ezean, titularren dotazioetara pasatuko dituzte betekizunak. Horren ostean, berariazko lekualdatze-lehiaketa izango da.

Kontuz, baina, diseinu horrek egoera bidegabeetara eraman baitgaitzake: hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ardura hartu duen bitarteko langilea kaltetuta gerta daiteke, hizkuntza-eskakizuna ez duen beste bitarteko langile baten mesedetan. 2015ean derrigortasun-data duten lanpostuak berariazko lekualdatze-lehiaketan aterako dituztelako eta derrigortasun gabeko plaza hutsak ordea (aterako dituztenak, oso litekeena baita denak ez eskaintzea), lehiaketa arruntean. Ia segurtzat eman daiteke lehiaketa arrunta geroago ebatziko dutela. Labur esanda, aukera handi samarra dago honako hau gertatzeko: euskara-eskakizuna izateagatik kalera joatea eta dotaziotik betekizuna kendu dioten bitarteko langilea geratzea, sine die. Horixe al da JAZk euskara ikastea eta erabiltzea sustatzeko duen era, dakitenak zigortzea?

Aurrekari ugari daude: hizkuntza-eskakizuna egiaztaturik ez edukitzeagatik zesatu behar izan duten bitarteko langileak. Narbarmena da sailak unean uneko komenentziaren arabera jokatzeko duela eta bitarteko langileak gero eta zaugarriagoak direla.

Lanposturako ezinbestekoa den hizkuntza-eskakizuna ez duten langileak gogoan harturik, LABek eskatu zuen berariazko lehiaketara arte itxaroteko haiek zesatu gabe. Baina, lehiaketa ebatzita, 2015erako derrigortasuna duten plazak hizkuntza-eskakizuna duten langileek bete beharko dituzte, titularrak izan zein ez.

EUROPAKO ZUZENTARUA DELA-ETA HIRURTEKOAK

Bageunden, bada, gu! Sailak ofizioz ordaintzea? Bai zera! Eskatu duenari baino ez dio ordaidu zorra. Dena dela, oraindik badaude langile batzuk ez dakitenak jaso gabe daukatela diru kopuru bat, Justizia Administrazioarekin une honetan ez daukatelako harremanik. Lotsagarria da: **persona horien datu guztiak izanda ere, ez diete ordaintzen; eta eskatu ezean diru hori poltsikoratuko du administrazioak.**

EIZUN ORDUTEGI SALDOA IKUSI

Errakuntza izan omen da, probak egiten zebiltzan. Nolanahi ere, urriaren 23tik zerbitzuko arduradunek badaukate aukera lizentziak, baimenak eta ordutegi kontrolaren inguruko gure datuak ikusteko.

LIZENTZIAK ETA BAIMENAK, ARAU BERRIA

Nobedaderik ez. Mahai Orokorrean gertatzen denaren zain gaude, hau da, EJren menpeko beste langileei bezala.

MEDIKUNTZA-KONTSULTAK

Esan zuten EJko langileei ezarritako irizpide berdinak ari direla gurean ere aplikatzen: gehienez jota, 4 ordu; hala ere, **justifikatu beharreko ez ohiko kasuetan, ezinbesto denbora tartea baimentzen da.**

MENDEKOAK ARTATZEKO 50 ORDU

Honetan ere aldaketarik ez. Hala ere, nabarmendu zuten baimena eskatu behar dela eta lanean ez egotea zerbitzuko arduradunari jakinarazteko obligazioa.

LAN-POLTSAK EGUNERATZEA

Sindikatuak egindako eskaerak gorabehera, tematu dira eta ez dute aintzat hartuko 2013ko EPE. **Asmoa omen da lan-poltsak urtean behin gaurkotzea. Ikusi beharko.**

GASTEIZ - BJB - JARRAIPEN BILERAK

Inork ez zien esan ZULUPkoei Jarraipen Batzordeko bilera izango zenik. Hortaz, ZULUPtako ordezkariak ez zen bertaratu eta sortzen ari diren arazoak jakinarazi gabe geratu ziren. **Deialdi zuzena egin dezatela exijitu genuen.**

7. HILETIK GORAKO GAIKOALDIAK

Badiote kontzeptu hori dela-eta kopuru guztiak ordainduko dituztela. **Hemendik aurrera ezezik (Sailburuordea horretan geratu zen uda partean), 2012tik egindako deskontuak ere itzuliko dituzte.** Pozten gara auzibidea behingoz baztertu izanaz. Horrela ahalezko epai kontrakoak sahiesten dira. Sinestuta gaude Arartekok sailari eskatu dizkion azalpenek ere lagundu dutela justizia errespetatzen. Kontuan hartu: ordainduko badute norberak eskatu behar du, ez ofizioz. Etorkizunean, 7. hilabetera heldurik, MUGEJUK ordaintzen duen subsidioa entregatu eta JAZk ordainsariaren %100 pagatuko du.

DONOSTIAKO KEZE

Sailak uko egiten dio presondegira joategatiko osagarria ordaintzeari; jarrera hori babesten duen epaia ba omen daukate. Antzaenez, CCOOK aurkeztu eta galdutako demanda da. Ustezko epaia ez ziguten eman, hortaz, esku artean daukagunean aztertuko dugu.

2012ko APARTEKO LANSARIA

Behin batean, esan zuen sailak, ordainsari-igoerak galaraztea bertan behera geratuta, aparteko lansari osoa ordainduko zuela. LABek gogora ekarri eta JAZri eskatu zion harekin betetzeko. Orain diote Mahai Orokorreko kontua dela, eta izan behar duena EJko langile guztiontzat zera bera izango dela.

BARAKALDOKO LPZ

Errefortzuen berri nahi zuen LABek. Sailak dio Barakaldon 6 errefortzu izango direla BJBrekin, gaurkoak baino gutxiago. Hortaz, ezarpena burutzean, errefortzuak ere sartuko dira banatu beharreko plazetan. Aurreko ezarpenetan gertatu bezala, lanpostuak beteko dira lan-poltsen ordenaren arabera. Behin eta

berriz diote: 2015eko lehenengo hiruhilabetekoan nahi dute BJB Barakaldon. Dena den, Ministerioak ordurako idazkarien LPZ argitaratu duen ala ez izango da horrela.

MONOGRAFIAK

EIZU weba ari dira moldatzen lanpostuen monografiak (BJBko plazak) kontsultatu ahal izateko; aldi berean, euskaratzen dabilta.

KUDEATZAILE ARDURADUNAK

Ezetz eta ezetz, ez dutela deituko berariazko lekualdatze-lehiaketa lanpostu horiek betetzeko asmoz (egun, zerbitzu-eginkizunez edo bitarteko langilez hornituta daude). Aurreko sailak baimentzen zuen arduradun plazan jarraitzea (zerbitzu-eginkizunean), lekualdatze-lehiaketan destino berria eskuratuta ere. Oraingo sailak, aldiz, ez du berdin pentsatzen eta zesatu berri du kudeatzaile arduradun bat destino berria lortu duelako. Berrito eskainiko omen dute kudeatzaile arduradun horrek betetzen zuen plaza.

ONLINE IKASTAROAK - IRREGULARTASUNAK

Izenda dezaten bitarteko langileek prestakuntza edo eskarmentua behar dute. **Hala ere, pertsona jakin batekin eurek ezarritako arauak apurtu dituzte; horren ondorioz, azalertatu dira sailak egiten dituen irregulartasunak:**

- Esandako langile horrek ez du egin dagokion online ikastaroa; eta ez du eskatzen den eskarmentua. Hala ere, JAZk uste du aski frogatua duela prestakuntza eta ez dio exijitu ikastaroa egin izana.
- Kasu honek frogatzen du ez dutela betetzen administrazioak bere buruari jarri zion obligazioa: gutxienez, lehenengo lan-poltsako langile guztiak prestatzea.

Ziurtzat eman dute kasu honen inguruko informazioa jasoko dugula.

LANALDI MURRIZTUA

Murriztua izanagatik ere, **egun libre guztiak (oporregunak, gehiegizkoak, norbere kontuetarakoak) ezagutzen ditu lanaldi mota horrek, baldintza batekin, ordea: urtean zehar bi lanaldi tipo ez txandakatzea.** Esate baterako, ekainean hasiz gero lanaldi murriztua, dagozkion egunen zati proportzionala emango dute.

EUSKARA IKASTAROAK

Aurretik bestelako bideetatik egin bezala, bileran ere nabarmendu zuen LABek ezinbestekoa dela euskaltegiara joateko eta handik itzultzeko denbora onartzea. Ez da bidezkoa: sailak berak esleitzen ditu euskaltegiak, baina lantokitik 20´ baina urrunago egotekotan, denbora tarte hori errekuarazten dute. Horrez gain, 8:00etan, euskaltegian, nahi dute behartu lanaldi hasiera; 7:30ean fitxatu eta gero klasera joatekotan, ibilbidearen denbora erreklamatzeko dute. Euskara mailara egokitzeko proba egitera joateko beharrezkoa den denbora tarte ere errekuaratzera behartzen dute. Bat, bi, hiru... gehiegikeriak ez ote du amaierarik? Euskara ikastea bultzatu baino traba guztiak jartzen dituzte.

3 HILABETETIK GORAKO GAIXOALDIETAN ORDEZKATZEA

Sinestezina. **3 hilabetekoa baino luzeagoa izango dela aurreikusten den gaixoaldirako txosten medikorik aurkeztu ezean, baliteke plaza hori ez ordezkatzeko, esandako denbora tarte hori pasatuta eta lizentziak segitzen duela frogatuta ere.** Munduko gauzarik normalena izango balitz bezala esan zuten. LABek arrapostu zuen hainbat osagile ez daudela prest horrelako txostenik emateko. JAZren esanetan, Osakidetzako medikuekin ez daukate arazorik, bai ordea erakunde pribatuetakoekin.

Txundigarria da. Ematen du sailak langileak areago gogaitzeko asmoz erabiltzen dituela orduok nahierara. Iaz, egun osoka baino ezin ziren disfrutatu, aurten orduka, baina hainbat oztupo jarrita. Arauak dio ordutegi malgutik deskontatzeko orduak direla; hala ere, ez dute nahi onartu egun horretan 7 ordu eta erditik gora egindako denbora tartea. Hori dela eta, ez dute aintzat hartzen nahiz eta gurean ordutegi malgutasuna 17:00ak arte izan. **JAZri eskatu genion gauzak korapilatzeari uzteko eta gehiegizko orduak hileko konpututik deskontatzeko.**

BITARTEKO LANGILEEN KONTRATUAK

Sailak ez du neurri bera bitarteko guztientzat. Hona hemen adibide argia: zerbitzu bereko bi langile 3 urte luze daramate errefortzuzko kontratuetan. Bati 6 hilabeteko kontratuak egiten dizkiote eta besteari hilero berritzen diote. Zer dela-eta? Gaixo zegoela baja hartzera ausartu zen. Orduz geroztik zigorra, lan-baldintzak kaskarragotu dizkiote: hilez hileko kontratuak.

EUSKARA IKASTAROAK – LAN ITUNPEKO LANGILEAK

Laborategiko bost langileei euskara ikastera joateko baimena ukatu diete. Oraingoan aitzakia diru falta izan da. Gertaera hau salatu du LABek, **deialdiak dioena ere ez dute eta betetzen. Betekizun guztizkiekin bat egiten duten langile batzuen eskabideak atzera bota dituzte.** Izan ere, laborategian euskara beharrezkoa ez dela pentzatzen bide du JAZk. Berraztertuko dutela esan arren, sinesgaitza iruditzen zaigu.

FUNTZIO ETA ZERGIN PROTOKOLOA

Protokolo hori BJB ezarrita dagoen organoetan aplikatzekoa da, baina ez da egiten. Ez idazkariak eta ez sailak ez dute ezertxo ere egiten protokoloak jasotzen duenaren arabera lana antolatze aldera. Kidego bakoitzari dagozkion funtzioak eta zereginak idatzita egonda ere, hainbat tokitan izapidegileak eta kudeatzaileak funtzio berdinak daukate.

Betetzen ez den beste kontua: jarduera-protokoloak dio bolumenaren arabera dagokiela laguntzaileei agiriak eta garraiatzea. Epaille batzuek, haatik, nahi dute laguntzaileak bat edo bi espediente eraman ditzaten judizio-aretoa.

Beraiek egindako protokoloak ere betearazteko gai ez dira idazkariak: ez dute banatzen lana kidego bakoitzari dagozkion funtzioen arabera (zeri ote diote beldur?); ematen du idazkariak ez direla ausartzen epaileei esatera espediente parek eraman dezatela judizio-aretoa. Protokoloak: praktikan, ahuntzaren eztula.

GIZARTE EKINTZA

Gero eta ohikoagoa: administrazioa legez behartuta dago zirriborroak ematera sindikatuei, berauek alegazioak egin ditzaten. Oraingoan zuzen-zuzen jaso genuen ebazpena. Arauak? Zertarako. Begoña Otazuak barkamena eskatu zuen arrazoia baikenuen. Bai, baina okerra egin eta gero.

ONDORIOAK

Sail honek ez du negoziatzen, bere irizpideak ezartzen ditu, eta ez beti berdinak. Hori horrela, langileak kolokan egoten dira, administrazioak nola jokatu ez dakitela. Ez digute jaramonik egiten sindikatuoi eta lortzen dena salaketaren edota borrokaren emaitza da. **Ez da gauza berria, baina gero eta hobeto egiten du sailak: langileengan ezinegona ereiteaz gain, babesgabetasuna sortzen du.**

Lanpostuak baloratzera eramango gaituena sail hau izango ote da? Auzitegiko medikuen inguruko informazio orrian azaldu bezala, plataforma sindikalean JAZri lanpostuak baloratzeko eskatzea planteatu

zen; LABek ezezeko botoa eman zuen pentsatzen dugulako oker itzela dela une honetan eta egungo sailarekin horrelakorik eskatzea. Hori nahiko argi ez balego, auzitegi medikuak parekatzeko asmoz egindako proposamenak zuzen gaudela berresten du: ez dute nahi ezta euro bakar bat gehiago gastatu pertsonal atalean. Izan ere, JAZk egiaztatu du ez dagoela 2015erako Aurrekontuetan inolako partidarik ordainsariak igotzeko.

Lanpostuz lanpostu joango da LAB gaur egungo egoera argitzera eta darabiltzagun kontzeptuak azaltzera: parekotasuna, balorazioa eta homologazioa.

Euskal Herria, 21-11-2014